



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko apirilak 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de abril de 2021

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAREN HERRITARREKIKO INTERAKZIO KANALEK GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA SUSTATZEN DUTE PANDEMIAN ZEHAR

- **2020an, aurreko urtearekin alderatuta, kontsulta kopuru bikoitza egin da postontzi elektronikoan, batez ere etxebizitzarekin, hezkuntzarekin eta enpleguarekin lotutako gaietan**
- **Eusko Jaurlaritzak buru izaten jarraitzen du gardentasun sailkapenetan**

Eusko Jaurlaritzaren gardentasun ereduak aurrerapausoak ematen jarraitzen du, eta herritarren eskura dagoen informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzen. Gardena gardentasun ataria (www.gardena.euskadi.eus) indartu egin da azken urte honetan eta datuak bistartzeko sarbideak bikoiztu ditu. Hala jasotzen da EAEko Administrazio Orokorreko eta haren sektore publikoko gardentasunari buruzko 2020ko balantze-txostenean. Kobid-19aren pandemiak agerian utzi du herritarrekiko interakzio kanalek ondo funtzionatzen dutela gardentasunari dagokionez, batez ere postontzi elektronikoaren bidez.

Gobernu Kontseiluak 'EAEko Administrazio Orokorrean eta haren Sektore Publikoan gardentasunaren ezarpen mailari buruzko 2020rako balantze-txostena' onartu du gaur. Azterlanak agerian uzten du Zuzenean-en herritarrekiko interakzio postontzia ondo dabilela, bai eta Telegram bidezko mezularitza zerbitzua eta Gardena atariaren bidez egiten den publizitate aktiboa ere. Ziurrenik, horrek azaltzen du beste autonomia erkidegoko batzuek baino informazio publikoa eskuratzeko eskaera gutxiago jaso izana.

Postontzi elektronikoa bezalako informazioa eskuratzeko kanalen erabilera oso zabaldua dago eta euskal herritarrek ondo baloratzen dute, Zuzenean zerbitzuak 2020ri buruz egindako urteko txosteneko datuek erakusten dutenez. Urte horretan 66.911 kontsulta izan ziren postontzi elektronikoan, aurreko urtekoaren bikoitza, eta Telegram bidezko kontsultetan hirukoitza (11.953). Gaietarako dagokienez, postontzi elektronikoan jasotako informazio publikoaren eskaera gehienak etxebizitzarekin (15.140), hezkuntzarekin (12.053) eta lan eta enpleguarekin (9.026) lotuta egon ziren.

Kobidarekin lotutako postontzi elektroniko bidezko arretak pisu handia izan dute 2020an, batez ere mugikortasunarekin eta langabeentzako, enpresentzako eta berrogeialdia pasa behar izan duten laguntzekin lotutakoak.

Txostenak Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen datuak jasotzen ditu eta informazio publikorako sarbidea ukatzeagatik iaz jasotako erreklamazioen berri ematen du. Orotara, 102 izan ziren, 2018an eta 2019an baino zertxobait gehiago. 2016tik 2020ra bitarteko epealdi osoan, hau da, gardentasunari buruzko Legea indarrean sartu zenetik, 321 erreklamazio jaso

dira; %64 EAeko udalek informazio publikorako sarbidea ukatzeagatiko erreklamazioak izan dira, eta %31 EAeko sektore publikoak. Informazio publikoa eskuratzearen arloko Euskadiko erreklamazioak ebatzez arduratzen den organo honek egiaztatu du udaletan sarbidea ukatzeagatiko erreklamazio gehienak (%84) administrazioaren isiltasunak eragin dituela, hau da, ez direla erantzun. Sektore publikoan, berriz, administrazioaren isiltasuna %57an eman da eta emandako informazioarekin bat ez etortzeagatiko erreklamazioak, berriz, %39an. Gardena gardentasun atariak aldian-aldian eta eguneratuta argitaratzen du Euskal Batzordearen jarduerari buruzko informazio guztia.

Informazio publikoa eskuratzeko prozedurak datu hobeak eman ditu eskaera kopuruari dagokionez, eta 2020an orotara 201 espediente izapidetu dira. Mekanismo horrek sarbide eskaeren izapidetze formala bermatzen du eta bilakaera positiboa izan du jasotako eskaeren kopuruan, 2018ko zenbakiak bikoiztuz. Ekonomiaren Garapen eta Ingurumen Sailak (%25), Segurtasun Sailak (%21), Hezkuntza Sailak (%13), Osasun Sailak (%12) eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak (%9) jaso dituzte eskaera gehien.

Eusko Jaurlaritzak gardentasunaren arloan egin dituen ahaleginak oihartzuna eta errekonozimendua izaten ari dira azken urteotan nazioarteko gardentasun adierazleetan. Sailkapen horietan, lehen posizioari eutsi dio autonomia erkidegoen artean 2016ra arte, urte horretan egin baitzen azken neurketa. Aitzitik, iaz Dyntra nazioarteko erakundeak bi ranking ezarri zituen, bata autonomia erkidegoena eta beste kobid-19aren kudeaketari buruzko. Bi kasuetan, Eusko Jaurlaritzak emaitza onak lortu ditu, hirugarren eta bigarren postuak, hurrenez hurren.

Txostenak Gardena gardentasun webgunearen garrantzia nabarmentzen du, gardentasun datuak eskuratzeko bide gisa. Eta azpimarratzen du kobidaren alarma egoera zela eta, 2020ko martxoan, pandemiaren kudeaketako gardentasun datuetarako sarbidea argitaratu zela, bai eta informazioa segurtasunez eskuratzeko orientabideak ere. Besteak beste, infekzioei buruzko informazioa argitaratu da, buletin epidemiologiko bat, baheketei buruzko datuak, datu irekiak Open Data Euskadin, osasun baliabideak eta txertaketa kanpaina, kobidaren inpaktua arintzeko ekintzak, eta herritarren eskura jarri dira 24 orduko *on line* kontsulta-txat bat eta hainbat aplikazio mugikor herritarren laguntzarekin koronabirusa eusten laguntzen dutenak.

Gardena atariak aurreko urteko bisita kopurua bikoiztu du 2020an, eta datuak bistartzeko sarbideak esanguratsuak izan dira. Datu horrek erakusten du euskal herritarrek administrazioaren funtzionamendua ezagutzeko duten interesa. Guztira, Gardenaren webguneak 37.311 bisita izan ditu eta adierazle horrek azken urteetan izan duen bilakaera positiboa berretsi du.

Gardentasunaren arloko ekimenak Tramitagune eta Legegunea plataformekin osatzen dira. Atari horiek aukera ematen dute espedienteen edukiak argitaratzea izapidetzeko prozeduran zehar eta Eusko Jaurlaritzaren baliabide juridikoak biltzen dituzte herritarrei modu ordenatuan eta sarbide erraz eta argiekin eskaintzeko.

Euskadiko gardentasunari buruzko mapa Open Data Euskadi plataformak osatzen du. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzarenak eta mendeko erakundeenak diren 5.365 datu-multzo ditu, eta horiei foro eta toki administrazioetako beste 1.664 datu-multzo gehitu behar zaizkie. Gardentasuna sustatzeaz gain, Open Data Euskadik ekintzaitza eta enpresen jarduera ekonomikoa sustatu nahi ditu, administrazioaren esku dauden datuak erabiliz.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK INDARTU EGITEN DITU EKOSISTEMA ETA EKINTZAILTZAREN FINANTZAKETA, ERALDAKETA EKONOMIKOAREN ETA SOZIALAREN PALANKA GISA

- **Eusko Jaurlaritzak 2024 Ekintzailtzako Erakunde Arteko Plana onartu du, enplegu-balioa eta -kalitatea emateko ekosistema erakargarria sendotzeko erronkarekin**
- **Ekintzailtza-prozesuaren etapa guztietarako 259 milioi eta 130 milioi euro gehigarriko inbertsio zuzena proiektatu du**
- **Euskal Autonomia Erkidegoa 2020 Impact Hub indizearen buruan dago. Indize horrek Estatu osoko ekintzailtza-ekosistemen kalitatea neurtzen du**

Gaurko Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko 2024 Ekintzailtzako Erakunde Arteko Planari, eta Eusko Legebiltzarraren ekainaren 28ko 16/2012 Legean ezarritako aginduari erantzuten dio. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak plan berria egin du 2021etik 2024ra bitarteko aldirako. Plan horrek gaur egun duen garrantzia izenak berak adierazten du: EEP 2024 Gure Ekonomia Eraldatuz – Euskal Ekintzailtzaren Ibilbide Orria.

Herri Plan bat, arlo publikoaren eta pribatuaren eta erakunde arteko lankidetzarekin

Erakunde arteko plana da, Sailen artekoa, eta eragile publiko eta pribatuen lankidetzari irekia. Plana prestatzen parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako Sail guztiek, hiru Foru Aldundiek, hiru euskal hiriburuetakoko Udalek, EUDELEk eta GARAPENek, gainerako toki-erakundeen eta garapen-agentzien ordezkari gisa, baita EAEn ekintzailtza egunero babesten duten eragile publiko-pribatu nagusiek (finantza-eragileek, eragile inbertitzaileek, enpresa-eragileek, hezkuntza-eragileek eta eragile sozialek) ere.

Erkidego-, lurralde-, eskualde- eta toki-mailan, dagoeneko 100 eragile publiko eta pribatu baino gehiago ari dira proiektu ekintzaileak sustatzen eta babesten haiek prestatzeko etapa guztietan. Sare publiko-pribatua da, gero eta osatuagoa, dinamikoagoa, konektatuagoa eta komunitate ekintzaileak berak gero eta baloratuagoa.

Oinarri eta emaitza egiaztatuak dituen ekosistema

Esan dezakegu gure EKOSISTEMAK gaur egun diziplina anitzeko hainbat gaitasun dituela ekintzailtzaren zerbitzura. Araudi-, zerga- eta erakunde-esparru sendo eta fidagarri baten gainean egituratzen diren profesional, zerbitzu, finantzaketa, sare, azpiegitura, laguntza- eta hedapen-programa eta abarren multzo bat. Ekimen ekintzaile berri askoren jatorri eta helmuga gisa, enpresa-,

industria- eta teknologia-sare bat eta prestakuntza- eta kohesio-maila handiko gizarte bat izateak duen garrantzia ahaztu gabe. Arreta berezia merezi dute azken 8 urteetan sortutako oinarri teknologikoko 779 enpresa berritzaile berri baino gehiagok (3.422 enplegu), besteak beste, industria, IKT, biozientziak-osasuna eta energiaren sektoretan.

Ekintzailtza-prozesuaren kolektibo, tipologia eta etapa guztiak barne hartzen ditu, mikroekintzailtzatik oinarri teknologikoko ekintzailtza berritzailearaino, kultura ekintzailea belaunaldi berrietan sortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoa ekintzailtzarako leku erakargarri gisa kokatzea ahaztu gabe.

EEP 2024: 11 erronka + 9 ARDATZ + lehentasunezko 35 erronka + 776 ekintza

EEP 2024k EAEko eragile publiko nagusien ekintzailtza babesteko konpromisoa dauka, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizartea eraldatzeko ahalegin partekatu gisa. 2030ari begira, gure ekosistemaren **11 erronka** proposatzen ditu:

1. Ekintzailtza Herriaren lehentasun gisa
2. Espezializazioa industria adimendunean
3. Ekintzailtza eginkizun berriak
4. Ekonomia-sarea eta enplegua berritzea
5. Talentu ekintzailearen "harrobia"
6. Ahalmen handiko proiektuak "eraikitzea"
7. Baterako inbertsio publikoa eta pribatua
8. Zerga-sistema ekintzailtza zerbitzura
9. Ekintzailtza teknologiko eta industrialeko polo gisa kokatzea
10. Ekosistema sofistikatzeko
11. Konplexutasunaren eta ziurgabetasunaren aurrean egokitzea

2030ari begira jarritako erronken esparruan, 2021-2024 aldirako euskal ekosistemak dituen **lehentasunezko 35 erronken** zerrenda bat planteatu da, erronka horien erresilientzia handitzeko, laguntza-prozesuak eta -dinamikak eraginkortasun handiagoz antolatzeko eta ekintzailtza ahalmena hurrengo urteetan susperraldia gertatzeko palanka gisa ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Gainera, **9 jarduketa-ardatz** (Kultura eta Balioak; Giza Kapitala; Ekintzailtza-ideien Iturriak; Finantzaketarako eta Inbertsiorako Sarbidea; Merkaturako Sarbidea; Laguntza Programak, Zerbitzuak eta Prozesuak; Fiskalitate eta Araudi Bideratzaileak; Azpiegitura Adimendunak; Ekosistema), 41 lan-ildo eta **776 ekintza** (horietatik % 87 ekosistemako 2 eragile edo gehiagoren arteko lankidetzak bidez garatuko dira) jaso dira.

Lankidetzak-dinamika hori ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta hedatzeko, EEP 2024ren eragile sustatzaileek konpromisoa hartu dute plan hau prestatzeko prozesuan egindako hausnarketen eta ekarpenen ondorioz sor daitezkeen baterako proiektu berrien sorta gehiago abian jartzeko. Hona hemen proiektu horietako batzuk: Ekintzailtza Euskal Ekosistemaren Aholku Batzordea

sortzea; Ekintzailtzako Euskal Ekosistemaren Mapa edo Euskal Ekosistemaren Bilakaeraren Aderazle Sintetiko.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Aholku Batzorde erkide batean parte hartzen duten gobernantza abian jartzeak eraginkortasun handiagoa emango dio Eraldaketa Digitalaren 2025 Estrategian aurreikusitako elkarreragingarritasun-plataformari, eta aukera emango die ekintzaileei administrazio-izapideak arintzeko eta, adibidez, enpresa berri bat 48 orduko epean eratzeko.

Aurrekontua indartzea, 389 milioi euroko zuzeneko eta zeharkako finantzaketarekin

2021ean Planari zuzenean lotutako aurrekontua 70,23 milioi eurokoa da, **2020an baino % 22 gehiago**. Horrek berretsi egiten du erakundeen artean ekintzailtza kalitatezko enplegua sortuko duen suspertze ekonomikoaren palanka gisa sendotzearen aldeko apustua, batez ere aukera-sektoreetan, eta eredu jasangarriago eta kolaboratiboagoen pean. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan urtero 33 milioi eurotik gorako gastua egiten da (2018ko datuak), ekintzailtzarekin zuzenean lotuta dauden eta euskal Foru Ogasunek PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatzen dituzten kenkariei, salbuespenei eta gainerako zerga-neurriei dagokienez. Plana XII. Legegintzaldira estrapolatzeak **389 milioi** euroko ahalegin ekonomikoa suposatuko luke. 259 milioi euro inguruko guztizko aurrekontua esleituko zen, eta kopuru horri 130 milioi euro, gutxi gorabehera, gehituko litzaizkioke laguntza fiskaletatik.

Euskal Autonomia Erkidegoa Impact Hub-en 2020 Indizearen buruan

Azpimarratzekoa da Estatu-mailan ekintzailtza-ekosistemen kalitateari eta inpaktuari buruzko azterketa berri batek (Impact Hub-en 2020 Indizea) Araba lehen postuan jartzen duela, Gipuzkoa hirugarrenean eta Bizkaia seigarrenean. Dimentsio anitzeko azterketa da —Nazio Batuen 17 Garapen Jasangarriko Helburuak erabiltzen ditu esparru gisa—, eta politika publikoek sare horiek indartzeko duten garrantzia azpimarratzen du, baita erresilientziatik eta jasangarritasunetik ekonomia bultzatuko duen kalitatezko ingurune ekintzailea izateko beharra ere. Azterketa hori gure sarearen kalitatearen beste froga bat da. Eta akuilu bat ere bai, haren bilakaera elkarlanean eta koordinatuta sustatzen jarraitzeko.

Azkenik, azpimarratu behar da ekimen berriak abian jarri direla etengabe eta eragile berriak agertu direla —publikoak, pribatuak eta publiko-pribatuak—, euskal ekosistemaren dinamismoa erakutsiz, baita eragile instituzional, ekonomiko eta sozial askok ekintzailtzarekiko duten gero eta interes handiagoa ere.

Faktore horiek, gure sarearen egungo kalitatearekin eta honek hobetzeko duen etengabeko jarrerarekin batera, ezinbestekoak izango dira datozen urteetan. Izan ere, urte horietan, ekintzailtzak funtsezko palanka izan behar du kalitatezko enplegua sortzen duen suspertze ekonomikorako, eta erantzuna eman behar dio gizarte gisa aurre egiten diogun trantsizio teknologiko-digital, energia- eta ingurumen-trantsizio, eta trantsizio demografiko eta sozial hirukoitzari.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 4,1 MILIOI EUROAN HANDITU DU UDALAGUNTZA DEIALDIAREN AURREKONTUA

- **Kopurua handitu ondoren, 2020ko Udalaguntza deialdiaren aurrekontu osoa 10,1 milioi eurokoa da**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 2020ko Udalaguntza deialdiaren aurrekontua 4.165.953 euroan handitzea. Deialdi honen bidez udalentsako laguntzak ematen dira, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak egin ditzaten. Gaur onartutako kopuru-handitzearen ondoren, 2020ko Udalaguntza deialdiaren aurrekontua 10.165.953 eurokoa da.

Joan zen abenduaren 1eko Gobernu Kontseiluan onartu zen 2020ko deialdiak 6 milioi euroko hasierako zenbatekoa zuen, eta berrikuntza nagusi bat ere bai: urtero deialdi honen bidez finantzatu ohi dituen lan eta jardueretarako dirulaguntzez gain, patioetan edo eskola-esparruetan karpak hornitu eta instalatzeko finantzaketa ere jasotzen zuen, betiere Covid-19k eragindako beharriaren arabera justifikatzen baziren hauek. Kasu honetan, Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak Balorazio Batzordeak onartutako aurrekontuaren %90 hartzen du, Udalaguntzaren bidez finantzatutako gainerako jardueretan ohikoa den %60 izan beharrean.

Aintzat harturik karpak instalazioak lehentasuna izan duela 2020ko deialdian gainerako jarduketekin alderatuta, Hezkuntza Sailak beharrezkotzat jo du Udalaguntzara bideratutako diru-kopurua handitzea, udalek aurkeztutako –eta baldintzak betetzen dituzten- ahalik eta eskaera gehien diruz laguntzeko.

Udalaguntza eta eskola-instalazioak eguneratzea

Udalaguntza deialdian parte hartu dezakete aurrerago aipaturiko ezaugarriak betetzen dituzten ikastetxeak kokaturik dauden eraikinen titular izan eta haietan hobekuntza lanak egiteko proiektuak aurkezten dituzten Euskadiko udalek. Kasurik gehienetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak izan ohi dira. 2020ko deialdiari dagokionez, lan horiek 2020ko urtarrilaren 1 eta 2021ko abuztuaren 31 bitartean hasi beharrekoak dira, eta 2021ko abenduaren 31 baino lehenago bukatuta egon beharrekoak.

Karpak instalazioaz harago, ikastetxeen irisgarritasuna hobetzeko lanak izan ohi dira sarritan deialdi honen bidez diruz laguntzen direnak, edo baita eraikin horien instalazioak eguneratu edo egokitzeko lanak ere, hala nola: kanpo nahiz barne arotzeria aldatzea; fatxada eraberritzea; patio eta jolastokietan zorua berritzea; eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketak; espazioak birbanatzea; teilatu-konponketak; instalazio elektrikoak eguneratzea; komunak eta saneamenduak konpontzea; edo berogailu sistema aldatzea, beste hamaika

motatako lanekin batera. Guztiak ere irakaskuntzaren kalitatean modu zuzen zuzenean eragiten duten jarduerak izan ohi dira. Lan hauen %60 Hezkuntza Sailak finantzatzen du, Balorazio Batzordeak onartu ondoren, eta %40 berriz, eskaera egin duen udalak.

Nola nahi, ez dira deialdi honen bidez finantzatuko lehen ezarpeneko lanak, ezta kontserbazioko eta mantentze obrak ere.

Hezkuntza

HIRU EUSKAL UNIBERTSITATEEKIN SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMEN 2021eko FINANTZIAZIOA 2,2 MILIOI EUROAN HANDITZEA

- Kopuru berria “*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” eta “*Gazte ekintzailtza*” programak garatzera bideratuko da Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2021 urtean “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programarako UPV/EHUri, Deustuko Unibertsitateari eta Mondragon Unibertsitateari emandako finantzazioa 2.252.000 euroan handitzea.

2.252.000 euroko kopuru hau, *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da. Programa hauek “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programan dagoeneko jasorik dauden ekintzen osagarri gertatzen dira. Diru-kopuru hau, honela gelditzen da banaturik, unibertsitate bakoitzeko:

	<i>Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa</i>	<i>Gazte ekintzailtza</i>	Guztira
UPV/EHU	1.200.000 €	150.000 €	1.350.000 €
Deustuko Unib.	500.000 €	66.000 €	566.000 €
Mondragon Unib.	300.000 €	36.000 €	336.000 €

Gaur onartu den finantzazio handitzea, Kontratu-Programak sinatzean dagoeneko 2021 urterako hiru unibertsitate hauentzat onartu zen 11,2 milioi euroko kopuruari gehitzen zaio.

“*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” programaren helburua da unibertsitate-ikasketetako azken kurtsoan dauden ikasleek edo eta unibertsitate titulu ofizial baten jabe direnek trebetasun handiagoa lortzea; izan ere, profil konkretu bati buruzko gaitasunei lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lortuko dira, lan-esperientzia bat egiaztatzeko aukera honen bidez.

Programa honetan parte hartuko duten ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresa batean. Aurrez, unibertsitateak hitzarmena sinatua izan beharko du enpresa horrekin. Unibertsitatea ikasle horien jarraipena egiteaz arduratuko da. Programa hau gehienez hiru unibertsitateetako mila ikasleri zuzenduko zaie.

Bestalde, “*Gazte ekintzailtza*” programari dagokionez, kultura ekintzailea unibertsitateko ikasleen artean aktibatzea du helburu. Horretarako, laguntza bat emango die eremu horretan sor daitezkeen enpresa-ekimenei eta enplegu

berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresen ekimenei. Programa hau gehienez bi unibertsitateetako 42 proiektuentzat izango da.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programa
- “Bikaintasun-ikerketa” Kontratu-Programa
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Kontratu-Programa

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeak baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Unibertsitateekin sinatutako “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programak, besteak beste, unibertsitateen eta enpresen eta beste erakunde batzuen arteko harremana sustatzeko jarduerak egitea aurreikusten du. Beraz, gorago azaldutako programa horiek dagoeneko Kontratu-Programetan aurreikusten zirenen osagarri dira.

Hezkuntza

200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera antolatzeko dirulaguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek, izan aurrez aurrekoak zein birtualak, 2021eko bigarren seihilekoan burutu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente egiaztatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, ikertzaile gazteen partaidetza errazteko gastuak edo, kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria, beste hainbat gasturen artean. Jardunaldiok 2021ko uztailaren 1a eta abenduaren 31 artean burutu beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

Biltzar eta bilera zientifikoaren eremu horretan eragin handia izan du COVID-19 pandemiak, eta formatu berriak sartu dira, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek egiten duten ikerketaren emaitzak zabaltzeko. Horregatik, salbuespen gisa, laguntzen deialdi honek aukera ematen du kongresu eta bilera zientifikoak modu birtualean edo on-line finantzatzeko.

Osasuna

GOBERNUAK ERREFORTZU-PROGRAMA BAT ONETSI DU OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZARAKO; BESTE 48 POSTU SARTUKO DIRA, ETA 2,5 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO BALIOA DU

Gobernu Kontseiluak, gaur, Osasuneko sailburuak eskatuta, aldi baterako programa sortzea onetsi du, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzan giza baliabideak sendotzeko eta, hala, Covid-19aren pandemiaren kudeaketarekin zerikusia duten eginkizun eta betebeharrei erantzuteko. Besteak beste eremu epidemiologikoaren, estatistikoaren eta juridikoaren 48 pertsona sartuko dira laster, Osasun Sailari laguntza eskaintzeko eta, hala, 2020an hasitako errefortzu-programarekin jarraitzeko.

Koronabirusaren pandemiak eragin duen salbuespenezko egoera honek Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren lanaren ohiko dinamika areagotu du 2020 eta 2021 ekitaldietan, eta, hori dela eta, Osasun Sailak aldi baterako programa hori sortzeko eskatu du. Programan beste 48 postu sartuko dira, Osasun Publikoaren eta Adikzioen eremuan hiru lurralde historikoetan garatu beharreko lanei erantzuteko eman beharreko babesa emateko.

Guztira, 14 postu Araban, 13 Gipuzkoan eta 21 Bizkaian, honako arlo hauetako pertsonal teknikoarekin: epidemiologia eta osasun publikoa, estatistika, aholkularitza juridikoa eta laguntzaile orokorrak. Pertsona horiek Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari laguntza emateko lanez arduratu beharko lirateke, besteak beste honako hauez: protokoloak egitea, datu-baseak mantentzeko-lana ikuskatzea eta kontrolatzea, Covid 19aren txertaketa-plana garatzea eta haren segimendua egitea, etab.

Programaren kostua, guztira, 2.751.190,23 eurokoa da urtean, baina 2021eko maiatzean abian jartzea aurreikusten denez, ekitaldi honetarako kostua 1.878.200 eurokoa izango da.

Programak 12 hil iraungo du, eta gehienez 24 hiletara luzatzeko aukera egongo da, pandemiaren eta Osasun Sailak dituen beharren bilakaeraren arabera.

Osasuna

GOBERNU KONTSEILUAK LANKIDETZA-HITZARMENAK SINATU DITU ZENBAIT ERAKUNDEREKIN, 388.000 EURO BAINO GEHIAGOKO ZENBATEKOAN, ADIKZIOEN INGURUKO PROGRAMAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du, gaur, Bizkaiko zenbait erakunderekin Osasun Sailaren lankidetzeta-hitzarmenak sinatzeko baimena. Honako hauek dira erakunde horietako batzuk: Bilboko Elizbarrutiko Cáritas, Hiesaren aurkako Bizkaiko Herritarren Batzordea eta Gizakia Fundazioa. Hitzarmenak 388.231 euroan sinatu dira eta adikzioei buruzko programak garatzera bideratuko dira.

Zehazki, hiru dira droga-mendekotasunak prebenitzea eta arrisku eta kalteak murriztea helburu dituzten diruz lagundutako ekimenak:

- Hontza programa, **Bilboko Elizbarrutiko Cáritasen** Larrialdietako eta Gaueko Harrerako Zentroaren kudeaketaren ingurukoa, 146.130 euroekin.
- Hiesaren aurkako **Bizkaiko Herritarren Batzordearen** droga-mendekotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroan 2021. urtean kalteak murrizteko programak, 76.000 euroekin.
- Bilbon “ANDEN 1” adikzioei arreta emateko zentro soziosanitarioa – ikuskatutako kontsumo-gela bat du– mantentzeko lana, **Gizakia fundazioari**, 166.101 euroekin.

Hiru programak Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak finantzatzen dituzte elkarrekin.

Hitzarmen horiek Adikzioen Planean sartzen dira; plan horren hirugarren jardun-ardatza adikzio-arazoak dituzten pertsonen arreta integrala bermatzean zentratzen da, eta arreta integral hori haien banako beharretan zentratzen da. Horretarako, haien berezitasuna errespetatzen du eta kalteberatasun handiko egoeran dauden pertsonen baliabideetarako sarbidea dutela bermatzen du; horretarako, haien oinarritzko beharretan laguntzeko eta behar horiei erantzuteko bide ematen du, arrisku eta kalteak murrizteko ikuspegitik.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 840.000 EURO ERABILIKO DITU, IAZ BAINO 240.000 GEHIAGO, MUSIKA-JARDUERA PROFESIONALA SUSTATZEKO

- Partituren edizioa, musika proiektu unitarioak, musika-ekimen enpresarialak, Zuzen-Zuzenean Zirkuitua eta musika-zikloak dira diruz lagunduko direnak
- Kultura eta Hizkuntza Politika sailak iaz 79 ekimen babestu zituen

Gaurko Gobernu Kontseiluak 2021eko ekitaldirako musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak onartu ditu. Musika ekoizpena, sustapena eta zabalkunde proiektuak dira lagunduko direnak eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren helburua musikagintzaren balio kate osoa indartzea da, hau da, sorkuntza, erakustaldia, kontsumoa eta profesionalen lana beti ere enpresen eta programazioaren egonkortasuna babestuz.

Guztira 840.000 euro bideratuko dira laguntza hauetara, iaz baino 240.000 gehiago eta honela banatuko dira:

- **Partituren edizioa: 40.000 euroko** aurrekontua erabiliko da (iaz baino 10.000 euro gehiago) Euskal Herrian jaio edo bizi diren egileek osatutako lanak argitaratzeko.
- **Musika-proiektu unitarioak: 240.000 euro** (iaz baino 78.000 euro gehiago) bideratuko dira musika proiektuak finantzatzera. Gutxienez bi disko kaleratuta dituzten musika-taldeak izan beharko dira eta bere musika ibilbide osoan zehar, Euskaditik kanpo 45 kontzertu profesional eginda izan behar dituzte.
- **Musika-ekimen enpresarialak:** musika ekoizpenean, musika-jardueraren ikerketan edo zabalkundean eta publikoaren formakuntza eta sentsibilizazioan lan egiten duten musika-proiektuak diruz laguntzeko **290.000 euro** erabiliko dira (iaz baino 76.000 gehiago).
- **Zuzen-Zuzenean Zirkuitua:** euskal musika taldeen kontzertuak programatzen dituzten musika-aretoen jarduera laguntzeko **210.000 euro** (iaz baino 70.000 euro gehiago) bideratuko ditu Kultura eta Hizkuntza Politika sailak.
- **Musika-zikloak:** ekimen pribatutatik bultzatutako musika-ziklo espezializatuak laguntzeko **60.000 euroko** aurrekontua (iaz baino 10.000 euro gehiago) erabiliko da. Zikloek musika genero zehatz baten espezializatua izan beharko dute eta gutxienez Euskadiko hiru lurraldeetan 12 kontzertu-data eskaini beharko ditu.

Diru-laguntzetara aurkezteko epea maiatzaren 19an hasiko da eta hilabetekoa izango da.

2020ko datuak

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak iaz, 2020. urtean, musika-jarduera profesionala laguntzeko guztira 79 proiektu babestu zituen. Sei izan ziran partituren ediziora bideratutakoak eta onuradunen artean daude Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, CM Ediciones Musicales, Asociación Musical Sinkro edo Orpheus Music. Musika proiektu unitarioen arloan berriz, 37 ekimen lagundu ziren eta onuradunen artean daude besteak beste: Demode Quartet, Olatz Salvador, Miren Narbaiza-MICE, Gatibu, Mikel Urdangarin edo Korrontzi.

Musika ekimen enpresarialen arloan berriz, 16 ekimen lagundu zituen iaz Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta tartean daude Baga Biga produkzioak, Elkar argitaletxea, Gaztelupeko Hotsak, Mauka musikagintza edo Lanku Bertso zerbitzuak. Zuzen-zuzenean kategorian 10 aretok jaso zuten diru-laguntza besteak beste, Bermeoko Kafe antzokiak, Dabadabak, Jimmy Jazzek, Santa 27 aretoak, Plateruenak eta Bilboko Kafe Antzokiak. Amaitzeko, musika zikloen arloan lau egitasmo babestu ziren: Kuraia musika garaikidearen topaketak, Sinkro elkarteak antolatzen duen Bernaola Zikloa, Auditorio 2020-21 Bilbaina Jazz Club kultur elkarteak antolatutakoa eta Musikagileak elkarteak antolatutako Musika garaikidearen Zikloa.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

717.000 EURO TURISMOA MERKATURATU ETA SUSTATZEKO LAGUNTZETAN, PROGRAMA #CTP21

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo **Sailak 717.000 euroko laguntzak onartu ditu, eta horien helburua da jarduera turistikoa berriz sustatzea**, Euskadiko produktu turistikoak diseinatzen eta martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen lagunduz, eta "Euskadi - Basque Country" marka turistikoa proiektatzen laguntzen duten ekitaldiei lagunduz.

Helburu horrekin bat etorriz, #CTP21 programan Euskadin garatzen diren eta **proiektu turistiko lehiakor eta arduratsu gisa definitzen diren produktu turistikoak sortzeko eta merkaturatzeko prozesua babestuko da**. Testuinguru pandemiko horretan, gainera, aldeko irizpidetzat hartuko da gure helmuga bereiziko duten eta Euskadi helmuga turistiko seguru gisa finkatuko duten baliabideak bultzatzea.

Programak, era berean, babesa emango die Euskadin egindako **kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei**, baldin eta nazioan eta nazioartean proiektzioa badute eta Euskadi seguru helmugaren irudia eta lidergoa sendotzen laguntzen badute. Salbuespen gisa, eta COVID-19ren pandemiak eragindako bilera-murrizketak direla eta, edizio honetan, diruz lagundu beharreko ekitaldiak presentzialak, birtualak edo hibridoak izan daitezke.

Diru-laguntza jasoko duten enpresak mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak (ETE) edo horien elkarteak izango dira, turismo-zerbitzuak edo turismo-jarduerarekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu ematen dutenak, bai eta irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakundeak ere, baldin eta horien helburu sozialean turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko jarduerak sartuta badaude.

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 12an, asteazkena, EHAAn argitaratu ondoren hasiko da, eta ekainaren 11n, ostirala, amaituko da.

Gobernanza Pública y Autogobierno

LOS CANALES DE INTERACCIÓN CON LA CIUDADANÍA DEL GOBIERNO VASCO APUNTALAN LA TRANSPARENCIA Y EL ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA DURANTE LA PANDEMIA

- **En 2020 se han atendido el doble de consultas en el buzón electrónico respecto del año anterior, sobre todo en cuestiones relacionadas con vivienda, educación y empleo**
- **El Ejecutivo vasco se mantiene en los puestos de cabeza en los rankings de transparencia**

El modelo de transparencia del Gobierno Vasco sigue dando pasos adelante y mejorando la calidad y cantidad de información a disposición de la ciudadanía. El portal de transparencia Gardena (www.gardena.euskadi.eus) se ha reforzado en este último año y ha duplicado los accesos a las visualizaciones de datos. Así se constata en el informe de balance 2020 sobre transparencia en la Administración General de la CAE y su sector público. La pandemia de la covid-19 ha puesto de relieve el buen funcionamiento de los canales de interacción con la ciudadanía en lo relativo a la transparencia, especialmente por el buzón electrónico.

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el 'Informe de Balance 2020 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración General de la CAE y su Sector Público'. El estudio pone de manifiesto el buen funcionamiento del buzón de interacción con la ciudadanía atendido por Zuzenean y también su servicio de mensajería por Telegram y la publicidad activa que se realiza a través del portal de transparencia Gardena. Esto explica probablemente la recepción de un número menor de solicitudes de acceso a la información pública que otras comunidades autónomas.

El uso de canales de acceso a la información como el buzón electrónico está muy generalizado y está bien valorado por la ciudadanía vasca, como revelan los datos del informe anual de Zuzenean relativo a 2020. Ese año se atendieron 66.911 consultas en el buzón electrónico, el doble que el año anterior, y más del triple (11.953) en las consultas por Telegram. Por temas, la mayor parte de solicitudes de información pública atendidas en el buzón electrónico estuvieron relacionadas con la vivienda (15.140), educación (12.053) y trabajo y empleo (9.026).

Las atenciones de buzón electrónico relacionadas con la covid han tenido mucho peso durante el año 2020, especialmente las relacionadas con la movilidad y las ayudas a personas desempleadas, a empresas y a personas en cuarentena. El informe recoge también los datos de la Comisión Vasca de Acceso a la Información Pública y revela las reclamaciones recibidas el año pasado por denegación de acceso a la información pública, que fueron 102, una cifra algo superior a la de los años 2019 y 2018. En el total del periodo del 2016 al 2020,

